



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

▶ Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERAREN GAINEKOA, **2019/06/21EKOA**

Kanpainaren laburpena

Negua

2018-2019ko mahasgintza kanpainan, tenperatura goxoak eta prezipitaziorik eza egon ziren udazkenean eta negu hasieran. Urtarrilak aurrera egin arte ez ziren iritsi boraskak, non halako sorta batek ura eta elurra ekarri baitzituen, eta horrek tenperatura jaitsarazi zuen neguko berezko erregistroetara. Hala ere, perturbazio atmosferiko horiek ez zuten askorik iraun: neguko eguraldi hori apenas luzatu zen otsailaren lehenengo egunetara arte, ordutik aurrera tenperatura igo baitzen sasoi horretan egon ohi dena baino askoz gehiago, eta ia ez zen prezipitaziorik egon.

Urtarrilean pilatutako ur erreserben eta negu bukaerako tenperatura altuen mende, udaberri meteorologikoa aurreratu egin zen hilabete baino gehiago, eta horren ondorioz landareak goiz esnatu ziren.

Otsaila eta martxoa lehorrak izan dira eta tenperaturak altua izan da, ohi ez bezala, garai horretarako. Nola ur gutxi egon den, tenperaturak ez du kasik eragin mahastia berehala kimatzean.

Udaberria

Apiril hasieran, zero gradutik beherako tenperatura egin du Arabako zenbait tokitan; hain zuzen ere, mahastiak punta berdeko edo ernamuin puztuko egoera fenologikoa egon direnean. Horrek ia ez du eraginik izan uztari begira.

Errioxan mendebalderen dagoen tokian, txingor zaparrada handia egon da apirilaren 6an. Mahastian kalteak izan dira, momentu horretan ernamuinak punta berdean zeudelako (C egoera), eta horrek % 6 inguruko galera eragingo du Bastidako uztan, herri hori izan baita kaltetuena, kooperatibako teknikarien kalkuluen arabera.

Apirilaren 13an, tenperatura 0 gradutik behera jaitsi da Arabako Errioxako zenbait herritan, hala nola Eltziegón, Bastidan eta Eskuernagan. Kalteak normalean izotzak jotzen ez duen tokietan egon dira, batez ere goi aldeetan. Esaterako, ernamuinen % 20 kaltetu da Gatzaga Buradon inguruko aurkintzaren batean, bai eta beste aldean ere, hau da, San Vicente de la Sonsierran.

Apirilaren bigarren hamabostaldia bereziki beroa izan da, eta prezipitazioek ez dute konpentsatu kanpaina hasieratik egoniko defizita.

Maiatzaren hasieran, berriz ere, beste alarma bat piztu da Arabako mahastietan. Maiatzaren 6ko goizaldean, mahastia punta berde (C) eta mahats mordo (F) egoeren artean egonik, tenperatura minimoak 0 gradu baino zertxobait baxuagoak izan dira, Arabako Errioxako eskualde guztiko eta Arabako Txakolinaren eskualdeko hainbat aurkintza eta finketan. Izozte horrek, nahiz eta gutxi-asko mahasti guztiei eragin, gunee edo lurzati jakin batzuk baino ez zituen kaltetu. Oro har, izozte hori ezin daiteke konparatu inola ere, ez azalera ez intentsitatean, Arabako ustiategietan, 2017an, egonikoarekin, baina badira mahastizain batzuk, zeinei murriztu egingo baitzaie behin betiko produkzioa, eta hori dela-eta erreklamazioa aurkeztu dute aseguru etxean.

Udaberriko eguraldi txar horren ondorioz (izozteak eta txingorra) egon daitezkeen galerak direla eta, aldeak egon arren ustiategitik ustiategira, mahats produkzioa behera jaits daiteke zertxobait Arabako Errioxan.

Maiatza oso lehorra izan da, azken 50 urteetako lehorrenetakoa, eta, gainera, hotz egin du, hilabete horretan ohi ez bezala. Edonola ere, apirileko hezetasun erreserben eta egun batzuetan tenperatura altua egitearen ondorioz mahastia azkarrago garatu da; izan ere, ekainaren lehenengo astean mahastiaren parte bat loratuta egon da.

Ekainean tenperatura gorabehera handiak egoten ari da. Berdin gaintzen dira 30 graduak eta berdin jaisten da tenperatura uda meteorologikoaren hasierari dagokionaren azpitik. Hil honetan, euria gogoz bota du behin baino gehiagotan, eta horri esker, partez konpentsatu da udaberriaren pilatutako ur falta (aurtengoa azken urteetako lehorrenetakoa izan da), baina areagotu egin da gaixotasun kriptogamikoak egoteko arriskua, batez ere oidioa egotekoa; gainera, euri horrek eraginen bat eduki ahal izan du mahatsaren mamitzean, eta hori datozen egunetan aztertu ahal izango dugu.

Izurritei dagokienez, kanpaina irauten ari den denboran, ez da gorabehera handiegirik egon, ohikoak alde batera utzita: trips intsektuak, armiarma horia, akariosia, erinosia, mahats mordoko sitsa, eta abar. Gaixotasunei dagokienez, prebentziozko tratamendua eman da, eta oraindik ematen ari da, oidioari aurre egiteko, eta berdin mildiuren kasuan. Azkeneko patogenotik, egun ez dakigu orbanik hauteman den, nahiz eta gaixotasun horrek kalte handia eragin joan den kanpainan.

Txosten hau idatzi den egunean, hau da, udaberriaren bukaeran, mahastia J egoera fenologikoan dago (mamitzea), ohi baino aurreratuxeago, eta, oro har, ongi eta osasuntsu garatzen ari da. Joandako egunetan, 15 eta 25 mm arteko prezipitazioak egon dira Arabako Errioxan. Hasteko, behintzat, hori ona da mahasti gehienentzat, zeinak mamitzen bukatzen ari baitira.

Udaberriko kimatze eta kimu berriak kimatzeko lanak egiten ari dira mahastizainak eta langile laguntzaileak maiatzetik, eta beste egun batzuk gehiago egingo dituzte.

Txosten honetan emaniko informazioa Arabako Errioxari buruzkoa da. Arabako Txakolinaren eremuan, meteorologia antzekoa izan da: negua lehorra eta epela, udaberria

oso hotza eta prezipitazio gutxirekin, eta fenomeno meteorologiko kaltetsuekin (izozteak), bat datozenak data eta eraginetan Arabako Errioxakoekin. Mahastiaren fenologia ere mamitze egoeran dago, une honetan.

Guardia, 2019ko ekainaren 21a

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA